

dan **tzaz**
konpainia



PRENTSA DOSIERRA
MINTZO

“**MINTZO**”k mintzairei, komunikazioari eta inkomunikazioari, hizkuntzak baino hobe adierazten duen gorputzari, zalantzei eta goganbeharrei erreparatzen die: guri, gizakioi buruz mintzatzen da. “**MINTZO**” gizabanakoen arteko ulermenaren, mestizaiaren eta tolerantziaren poema bat da.

Ikuskizun honetan, DANTZAZ konpainiak agertzen ari diren koreografoen aldeko apustua egin du:

* Sophie ANTOINE, bi denboralditan DANTZAZ konpainiako dantzari izan da eta, egun, Nürembergeko Balletean dabil. Bada, “Dis-Connected” proposatuko digu, dantzari gazteen arteko lehenengo topaketari buruzko kontakizun bat.

* Frankfurteko Balleteko dantzari bikain eta Duatoren laguntzaile izandako Hilde KOCHen proposamen berriarekin atsegin hartuko dugu: Dantzaz konpainiarako sortutako “Smoke Rings”, Laurie Anderson poeta, marrazkigile eta artista esperimentalaren musika-konplizitateaz.

* “Ballet 101”en, **Eric GAUTHIER** balet klasikoan murgiltzen da bete-betean, aldarte umoretsuz. Dantza klasikoaren oinarritzko bost posizioak oinarri hartuz, balet eta koreografo ezagunen umore-erreferentziak dauzkaten 100 posizio sortu ditu. Hartara, umorea, bertuosismoa, indarra eta originaltasuna nahasten ditu.

* Dantza garaikideko izar donostiar eta William Forsytheren dantzari, Jone SAN MARTINEk “Gorputitz” sortu du bereziki DANTZAZ Konpainiarentzat Mozarten musika ahaztezina baliatuz.

DIS-CONNECTED

Koreografia:	Sophie Antoine
Musika:	Yann Tiersen y Armand Amar
Argien diseinua:	Alberto Arizaga
Jantziak:	Sophie Antoine


Dis-Connected

Elkarlanean aritu beharko duten 9 dantzariren lehen topaketa: hizkuntza ezberdinek komunikatzea eragozten die eta lan nekeza bihurtuko da, desadostasunera iristeraino. "Gorputzaren lengoaiak" elkar erakartzen lagunduko die eta bakoitzaren nortasuna azalerauko da.

Elkarri hurbiltzeko grinak eta sortzeko sentikortasunak pixkanaka taldea batzen joango diren loturak sortuko ditu eta elkartruckerako eta elkar aberasteko irrika duen taldea eratuko du.

Sophie Antoine





Sophie Antoine

Nizan, Frantzian, jaio zen 1988an. Avignongo Dantza Kontserbatorioan ikasi zuen. Bere ibilbide gaztean zehar «Compagnie du Ballet de la Cité des Papes» taldean eta, 2008 eta 2010 artean, Dantzaz Konpainian aritu da.

Gaur egun Nuremberg-eko Balletean bakarlaria da, Goyo Montero koreografo espainiarraren zuzendaritzapean.

SMOKE RINGS

Koreografia: **Hilde Koch**

Musika: **“Smoke rings.” Laurie Anderson**

Argien diseinua: **Alberto Arizaga**

Jantziak: **Hilde Koch**

2010eko ekainaren 5ean, Victoria Eugenia Antzokian

(Donostia)

“Well I had a dream and in it

I went to a little town

And all the girls in town were named Betty”

Binetak diruditen zentzurik gabeko umorezko testuak izan dira, Lauri Anderson-en abesti horretan aurki daitezkeenak, lan hau sortzeko nire abiapuntua.

“Zer da matxoago, pineapple ala knife?”

Hilde Koch





Hilde Koch

Dantzaria, zuzendari laguntzailea. Valentziako Erkidegoko Antzokien Artezkaritza Kontseiluko kidea

Zazpi urte Donostiako Musika eta Dantza Kontserbatorioan (Gipuzkoa)

Hamazazpi urterekin ikasketak amaitu zituen “Ballet Stuttgart” Eskolan.

Lehen kontratua Konpainia berberarekin John Cranko zuzendari zela.

1981etik 1991ra, kontratua “Frankfurt Ballett“ konpainian solista gisa William Forsythe zuzendari zuela.

1991n, Dantza Konpainia Nazionaleko zuzendaritza artistikoko laguntzaile Nacho Duato zuzendari zela.

1993an, bere seme Marco losu jaio zen.

1993tik, Nacho Duato eta William Forsythe zuzendarien Ballet desberdinak eszenifikatzen ditu nazioarteko Konpainientzat eta tailerrak ematen ditu.

2004tik, Valentziako Erkidegoko Antzokien Artezkaritza Kontseiluko kidea da Inmaculada Gil zuzendari duela.

BALLET 101

Koreografia:	Eric Gauthier
Musika:	Eric Gauthier y Jens-Peter Abele
Laguntzaile artistikoa:	Renato Arismendi
Jantziak eta argiztapena:	Eric Gauthier
Mundu-mailako estreinaldia: 2006, Noverre Sozietatea, Stuttgart: "Koreografo Gazteak"	

Ballet 101

Ballet 101 Eric Gauthierrek ballet klasikoan umorez blai egin duen "murgilketa sakona" da. Dantza klasikoko oinarrizko bost posizioak oinarri hartuta, Gauthierrek, ballet eta koreografo ezagunenei umorezko erreferentziak eginez, 100 posizio sortu ditu. Lehen zatian, posizioak erakusten ditu. Lanaren bigarren zatian, berriz, ausaz nahastuta agertzen dira amaierako koreografia harrigarria sortuz.





Eric Gauthier

Zuzendaria / Koreografoa, Gauthier Dance

Eric Gauthier Montrealen, Kanadan, jaio zen. Torontoko National Ballet School eskolan trebatu zen 1996an, Reid Anderson Zuzendari Artistikoaren gonbidapena onartuz. 2000. urtean, Eric Gauthier semi-solista izendatu zuten, eta 2002an Solista izatera iritsi zen.

Stuttgart Ballet konpainiarekin, Gauthierrek errepertorio klasiko, neoklasiko eta garaikidea dantzatu zuen. Halaber, Christian Spuck, Kevin O'Day, Mauro Bigonzetti, Itzik Galili, Dominique Dumais, Marguerite Donlon, Daniela Kurz eta Nicolo Fonte bezalako koreografoen inspirazio-iturri izan zen, pertsonaiak sortu baitzituzten berarentzat. 2001en, dantzari gisa zeraman karreraz gain, Gauthierrek musika-talde bat sortu zuen. Talde horren hitzak idazteaz gain, abestu eta gitarra ere jotzen du. 2005ean, Gauthierrek koreografo gisa egin zuen debuta Stuttgarten egoitza duen Noverre Society delakoaren “Koreografo Gazteak” programan.

2007ko urritik aurrera, Gauthier Dance konpainiako zuzendari eta koreografoa da. Konpainia Stuttgarteko Theaterhaus antzokian finkatua dago. Konpainiaren lehen emanaldian, 2008an, kritikaren laudorio guztiak jaso zituen eta egindako 21 saioetan sarrera guztiak agortu ziren. Gainera, Luxemburg eta Kanadako biretan ere arrakasta handia lortu zuen. Gauthier Dance konpainiak, komunitatearentzat hezkuntza-programa zabala ere badu (Gauthier Dance Mobil). Programa horri esker, beste era batera dantza garaikideaz gozatzeko aukera izango ez luketen pertsoneri espresio artistiko horixe ezagutarazten zaie.

GORPUTITZ

Koreografoa: **Jone San Martín**

Musika: **“Sinfonía Concertante para violín, viola y orquesta”
“Adagio y Fuga para cuarteto de cuerda”
Violin concerto numero 1 en B flat .
Amadeus Mozart**

Argien diseinua: **Alberto Arizaga**

Jantziak: **Nerea San Martín**

*2010eko ekainaren 5ean, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAN
(DONOSTIA)*

“Eszenatokia orri garbia eta mugimendua tinta direla imajinatuko dugu, eta begiak kliskatzen ditugun bakoitzean orrialde bat pasatu dugula”

Jone San Martín





Jone San Martín

Donostian jaio zen.

Konpainia hauetan aritu da dantzan: Bartzelonako Balleta, Espainiako Ballet Nazionala, Ulmer Teather, Philippe Talard, Belgikako Archipel Sud, Belgikako Jose Besprosvany konpainia, Belgikako Jacopo Godani konpainia, Belgikako Charleroi Balleta, Alemaniako Ballett Frankfurt-William Forsythe. Gaur egun The Forsythe Company taldean dantzatzen du.

Dantzari gisa, eta W. Forsythe, Dana Caspersen eta Kristine Burkle-ekin batera, 1996an Municheko Haus der Kunst Museoan egin zen Francis Bacon artistaren erakusketaren inauguraziora gonbidatu zuten.

Cartier Fundazioak ere, Parisen Issey Miyake-n erakusketarako, Kristina Burkle-ekin batera, 1999an gonbidatu zuen.

2004an Avignongo Jaialdira gonbidatu zuten, Carlotta Sagna-ren «Turlourou» lanarekin.

Jone San Martinek Gipuzkoako Profesionalen Elkartearen eskutik Dantzaren IV. Saria jaso zuen.



Dantzariak: Marco de Alteriis, Anneleen Dedroog, Emmanuel Dobby, Nuria Giménez, Mireia González, Leonor Henriques, Anna Jirmanová, Hugo Mercier, Guillermo Millán, Marine Sanchez.

Zuzendari nagusia: Filgi Claverie

Zuzendari artistikoa: Adriana Pous Ojeda

Irakasleak: Iñaki Landa, Josu Mujika

Produkzio arduraduna: Sofía Alforja

Administrazioa: Laida Oliemuller

Talde teknikoa: Eragin Stac

Jantzi arduraduna: Benedetta Orsoli

Argazkiak: Manuel Díaz de Rada, Jose Usoz

Harremana:

Xabina CLAVERIE-URRUTY

Hedapen arduraduna

Arteleku

Kristobaldegi 14

E-20014 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: (+34) 943 470 021/ +34 689 49 34 62

dantzaz@dantzaz.net

gure babesleen laguntza ezinbestekoari esker :



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera



KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

baita gure kolaboratzailearena:

donostiakultura.com